



Elkar zaintzeko jositako sarea



Iratxe Delgado eta Miren Erdoiza etxetik irten ezin duten pertsonen laguntzeko asmoz sortu den Durangoko zaintza sareko kideak dira. Zaintzak komunitatea sortzeko duen garrantzia nabarmendu dute, besteak beste. • 2

Lur-jausia gertatu eta hile bira, Alberto eta Joaquin gogoan izan dituzte

Zaldibar | Astelehenean hile bi bete ziren Zaldibarko Verter Recycling hondakindegian luizia gertatu zenetik. Harrezkero, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran behar-ginek hondakinen artean desagertuta jarraitzen dute. Konfinamendu egoera honetan langile biak gogoratzeko, Durangaldeko hainbat herritarrek burrundara sendoa egin zuten balkoietan. • 6



“Elkar errespetatzeko, maitatzeko eta elkar ulertzeko momentuan gaude”

Josu Saetero Milla
Psikologoa • 3



Gorka Fraileri baldintzapeko askatasuna eman diote atxilotu zutenetik 22 urte bete diren egunean

Durango | Fraile hirugarren graduan egon da. Astelehenean jakin zuen baldintzapeko askatasuna eman diotela. • 4



“Konfiantza molde berriak sortu dira lagun, kuadrilla eta famuliatik kanpora komunitate zabalago baten parte bihurtuz”

300 lagunek baino gehiagok eman dute izena Durangoko zaintza sarean; 37 pertsonari eman zaie laguntza, elikagaiak eta botikak erosita, batez ere



Iratxe Delgado Arribas eta Miren Erdoiza Mujika | Durangoko zaintza sarean | Durango, 1994

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Durangaldeko beste herri batzuetan legez, Durangon ere eratu da etxetik irten ezin duten pertsonen laguntzeko zaintza sarean. Udalgaz eta Gurutze Gorriagaz batera koordinatzen da. Iratxe Delgado eta Miren Erdoiza durangarrak taldeko partaide dira.

Zergaitik eman zenuten izena boluntario sarean?

Iratxe Delgado Arribas: Herritar modura ardura bat sentitzen genuelako. Nabarmena da zaurgarriak diren pertsonak zaintzeko premia, eta, komunitatearen parte garen heinean, uste dugu erantzukizunez jokatu behar dugula. Konturatu gara guretzat bereziki nekeza ez den zerbait (erosketak egitea, botikak eramatea) oso garrantzitsua izan daitekeela beste batzuentzat.

Zergaitik da hain garrantzitsua zaintza une honetan?

Miren Erdoiza Mujika: Elkarzaintza beti da garrantzitsua, izaki sozialak garelako eta beharrezana komunitatean asetzen dugulako. Covid-19ak eta konfinamenduak agerian utzi du beharrezan hau. Herria komunitate modura ulertzen dugun

heinean, nabaria den zerbaitegaz ohartzen gara: kolektibitateak dakarren aniztasunaz. Durango herri anitza da eta gertakari honen datuek diote ehunka bizilagun konfinatuta daudela etxean, lehenengo mailakoak diren premiak asetu ezinda. Beraz, beste horrenbeste

“**Auzo eta atarietan antolatzen ari diren jolas, kantaldi eta abarrek arrastoa utziko dute**”

herritar beharko genituzke gutxienez, defendatzen dugun bizitza duina ziurtatzeko.

Zelakoa izan da herritarren harrera? Zelako beharrezan edo dudak agertu dituzte?

I.D.A.: Orokorrean harrera ona izan duela uste dugu. Alde batetik, bistakoa da parte-hartzea handia izan dela, izan ere, ordu gutxitan ehunka pertsonen parte hartu zuten. Beste alde batetik, langileak (Gurutze

Gorrikoak, farmazialariak...) kalitatezko zerbitzua eskaintzeko indarra ipintzen ari dira, eta etxean daudenengandik esker oneko berbak baino ez ditugu jaso. Iruditzen zaigu jakitun direla dinamikaren funtzionamenduaren inguruan, ez digute galdera askorik egin eta. Galdetu diegunean zerbait behar ote zuten, eskerrak baino ez dizkigute eman.

Horrez gainera, zaintza sareko sare sozialen bitartez esker mezuak jaso ditugu, baita proposamenak eta laguntzeko prestutasuna erakusten zituzten mezuak ere: konfinamenduaren eguneroko erraldoi bat egiteko proposamena, edo lan eremuan informazio juridikoa emateko prest zegoen pertsona baten mezua, besteak beste.

Aurrera begira, sare hauen lanak arrastoa utziko duela uste duzue?

M.E.M.: Hori gura genuke. Alde batetik, elkartzunean eta elkarzaintzan oinarritutako nortasun kolektibo indartsu bat eraikitzen lagunduko du. Bestalde, gure beharrezan eta nahiak asetze aldera, herri antolatuago bat sortzen. Guk zaintza sare modura antolatu dugunak baino gehiago, auzo eta atari askotan izan diren keinuek, eta

antolatzen ari diren jolas, kantaldi eta abarrek utziko dute arrastoa. Konfiantza molde berriak sortu dira, lagun, kuadrilla eta famuliatik kanpora komunitate zabalago baten parte bihurtuz. Durangoren kasuan gainera, uste dugu udalaren eta herritarren arteko elkarlan

“**Auzia ez da makala, baina argi dugu bakoitzak dagokion lekutik erantzun beharko diola krisiari**”

esperientzia interesgarri bat izango dela, aurrera begira bestelako eremu batzuetara zabaldu litekeena.

Krisia ekonomikoa ere izango dela aurreikusten da. Hau elkarregaz bizita, jendarteak indartuta irtengo duela uste duzue?

I.D.A.: Hori gura genuke. Horregaitik, beharrezkoa da zaintza sareetan antolatzeari. Horixe da oinarritzko ideia: pandemia honi elkarregaz aurre egitea; eliteen interes

ekonomikoen gainetik, pertsonen bizitzari emanda garrantzia, eta horretarako baliabideak herritarren mesedetan ipinita, inor atzean utzi barik. Ideia eta jarrera horrek krisi ekonomikoa aurre egiteko ere balio digu.

Covid-19aren krisiak pertsona askoren bizi baldintzetan eragingo du. Batez ere, gaitza amaitutakoan: askok enplegua galduko dute, beste batzuek ezinongo dituzte fakturak edo alokairua ordaindu... Auzia ez da makala, baina argi dugu bakoitzak dagokion lekutik erantzun beharko diola krisiari: badaukanak emanez eta ez daukanak jasoz.

Zer egin behar dute zaintza sarean laguntza eskaini gura dutenak? Eta laguntza behar dutenak?

M.E.M.: Sarean laguntza eskaini edo eskatzeko, 638 102 424 telefono zenbakia (9:00etatik 21:00etara) eta durangoauzolana@gmail.com helbidea erabili daitezke. Bestetik, zaintza sareagaz bestelako egitasmoetan parte hartzeko edo egitasmo berriak proposatzeko, elkarzainduz@gmail.com helbidea erabili edo Instagram eta Facebook kontuen bitartez ipini daiteke hartu-emanetan.

“Egoera berezi honetan umeen esfortzua baloratzea garrantzitsua da, eta eurak horren jakitun izatea”

Josu Saetero psikologoak bere burua boluntario lez aurkeztu du egoera berezi honetan laguntza psikologikoa behar duten abadiñarrei laguntzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Covid-19aren gaitzak elkartasuna ekarri du eskualdera. Hainbat herritar euren aletxoa ipini guran dabilta, eta horietariko bat Josu Saetero psikologoa da. Abadiñarrak bere burua aurkeztu du beharrezan duten herritarrei laguntzeko.

Sare sozialetan ikusi dugu zeure burua aurkeztu duzula beharrezan duten herritarrei laguntzeko. Zelanotu zitzazun ideia?

Psikologiako profesionala izanda, jakinean nago koronabirusaren eraginez bizi dugun salbuespen egoera honek aldaketak sortu dituela gure egunerokotasunean, eta sortuko dituela. Aldaketa horiek erraztu egin dezakete ondoeza agertzea, mota askotako ondoeza: ezinegona, estura, bizikidetzan zailtasunak... Beraz, hori jakinda eta elkartasunerako momentua dela pentsatuta, Abadiñon neure aletxoa ipini gura dut.

Zelako erantzuna jaso duzu?

Mezua plataforma batean ipini nuen, eta jendeak eskertu zuen. Oraingoz, dei bi jaso ditut.

Jendeari kostatu egiten zaio pausobat eman eta laguntza eskatzea?

Gizarte honetan, modu batean edo bestean, jende askok zaurgarritasunagaz eta ahultasunagaz lotzen du laguntza eskatzeko kontzeptua, baina oso erratuta gaude. Ez gara konturatzen laguntza eskatzen jakitea oso baliagarria den gaitasuna dela, eta oso baliabide garrantzitsua gure egunerokotasunerako. Kontuan izan behar dugu hau elkartasunerako momentua dela, eta jendea laguntzeko prest dagoela. Beraz, aprobeitxatu behar dugun baliabidea da.

Zer esango zenieke herritarrei?

Elkar errespetatzeko, maitatzeko eta elkar ulertzeko momentu batean gaudela, eta argi izan behar



dugula egoera amaituko dela. Horrez gainera, beharrezan sumatuz gero laguntza eskatzeko esango nieke. Aurreiritziak eta estigmak alde batera uzteko garaia dela. Jende asko dago laguntzeko prest.

Urtean zehar, ume eta gazteekin lan egiten duzu batez ere. Ia hilabete daramate etxean sartuta, irten bari. Zelan uste duzu kudeatu behar dutela, bai eurek, bai euren familiek, egoera hau?

Lehenengo eta behin, umeak eta euren gurasoak egiten dabiltzan lana txalotu gura nuke. Familia-

“

Ezohiko egoera honi begiratzeko ikuspuntua aldatzeko aholkua emango nieke herritarrei

—

rik gehienak oso ondo aurre egiten dabilta ezohiko egoera honi. Dena dela, egoerari begiratzeko

ikuspuntua aldatzea aholkatuko nieke; hau da, egoera hau aukera bat lez ikustea. Normalean egin ezin ditugun gauzak egiteko tartea hartzea eta horiekin disfrutatzea gomendatuko nieke, besteak beste. Argi dago umeek emozionalki gorabeherak izango dituztela; beraz, horiek errespetatu eta azaleratzen laguntzea ezinbestekoa izango da. Bestalde, ez da lehiakortasuna bultzatzen duten jolasetan aritzeko garaia, ezta beldurrezko zein dramazko pelikulak ikustekoa ere. En Tol Sarmiento musika taldearen

Aukera berriak abestia altu-altu ipini eta dantzatzeko momentua da.

Horrez gainera, gurasoei esango nieke garrantzitsua dela egoera berezi honetan umeen esfortzua baloratzea, eta eurak horren jakitun izatea; egoera honetatik irteteko ezinbestekoak direla esatea.

Umeekin egoera honetaz berba egitea komeni da? Zein puntutaraino kontatu behar zaie?

Sarritan uste dugu umeek ez dutela askorik ulertzen, eta hori hankasartzea da. Eurentzat garrantzitsua da jakitea euren bizimoduan zerk eragin duen aldaketa hau eta baita norbaitek azaltzea ere horri zelan aurre egin diezaioketen. Ulergarri egiten zaizkien berba eta kontzeptuekin eman behar zaizkie azalpenak. Ez da komeni ulertu dezaketen baina gehiago azaltzea.

Garrantzitsua da egoera honetan errutina batzuk markatuta izatea?

Errutinek ziurtasun sentsazioa ematen digute eta ez diote lekurik uzten ezjakintasunari. Beraz, garrantzitsuak dira, baina, hala ere, gaur egun bizi dugun egoeran norbanakoaren egoera emozionala lehenetsi behar da. Exijentziak murrizteko unea da, malguagoak izan behar dugu.

Ume baten ikasketa ibilbidean aste batzuetan eskolara ez joateak etorkizunean eragin dezakeela uste duzu?

Alde horretatik, oso ikuspuntu positiboa dut. Ez dut uste eragin nabarmenik izango duenik ikasleen ikaskuntza akademikoan. Gaztetxoek egokitzapen gaitasuna etenaldi honek suposatzen duen traba baino askoz ere handiagoa da. Bi edo hiru hilabeteen eskolara joan ez arren, bueltan oso erraz egokitu dira; horretarako ahalmena dute. Hala ere, ikusi egin beharko da Hezkuntza Sailak eta Gobernuak zelan kudeatzen duten egoera hau.

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{unte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Fraileri baldintzapeko askatasuna eman diote, atxilotu zutela 22 urte bete diren egunean

DURANGO • JONE GUENETXEA

2015ean mingaineko minbizia topatu ziotenetik, Gorka Fraile preso durangarra gaixotasun larriak dituzten presoan zerrendan egon da. 2020ko urtarrilean hirugarren gradua eman zioten. Senitartekoei ANBOTOrri baieztatu diotenez, baldintzapeko askatasuna eman diotela jaki-

2018ko azaroan, Badajozetik Kantabriako El Dueso kartzelara gerturatu zuten

narazi diote asteen presoaren abokatuari. Atxilotu zutela 22 urte betetzen ziren egunean, apirilaren 6an, jakinarazi zioten baldintzapeko askatasunaren berria. Gorka Frailek 20 urte eman ditu lehenengo graduan, Aranjuezen, Caceresen eta Badajozen. Orain bost urte minbizia topatu zioten, eta, horregaitik, etxeratzeko eskatu izan du berak epaitegietan, eta bere ingurukoek kaleetan. 2018ko azaroan, Badajozeko kartzelatik Kantabriako El Duesokora gerturatu zuten. 2020ko urtarriaren hasieran hirugarren gradua eman zioten.

Test kopurua areagotuta, jaitsi egin da kutsatu berrien portzentajea: lautik batek eman du positibo

Kutsatze berriek joera baikorra erakusten duten arren, heriotzen kopurua inoizko ezkorrena da: martitzenean 52 herritar hil ziren EAEn

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Koronabirusagaz lotutako azken berriek informazio gazi-gozaak utzi dituzte. Albiste txarrak hildakoen kopuruetatik etorri dira. Osasun Sailak eguaztenean emandako datuen arabera, martitzenean 52 lagun hil ziren koronabirusagaitik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Heriotza horiek osasun krisia hasi zenetik honako egunik beltzena utzi dute. Baina albiste itxaropentsuak ere badaude, kutsatutako kopuruetatik datozenak. Badirudi konfinamendua eragina izaten ari dela eta kutsatze berriak egonkortze fase batean sartu direla. Dena dela, oraindino luzea da egin beharreko bidea, eta bitartean erne egoteko deia egin dute agintariek. Edizio hau ixterako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak

argitaratu barik zituen koronabirusaren egueneko datuak. Eguaztenean, 254 ziren Durangaldean baieztatutako kasuak.

Astea datu itxaropentsuekin zabandu zen Durangaldean. Bai astelehenean eta baita martitzenean

Osakidetza test bizkorak egiten hasi da; martitzenean 1.698 test egin zituen

ere, gaixo kopuruaren inoizko gorakadarik txikiena izan zen. Lau positibo berri antzeman ziren astelehenean, eta beste horrenbeste martitzenean. Eguaztenean, baina, kopuruak gora egin zuen.

Hamalau kasu gehitu ziren. Osasun Sailaren esanetan, gorakada horren atzean test bizkorren eragina legoke. Izan ere, Osakidetza orain arteko test kopururik handiena egin zuen martitzenean (1.698 test), eta horrek ekarri du kasu gehiago baieztatu ahal izatea, eta, ondorioz, eguazteneko txostenean kopuruaren gorakada sumatzea. Dena dela, datu baikorra da: egiten diren testetatik laurdenak "bakarrik" eman du positibo Osakidetzaren esanetan. Martxoaren hasieratik ez zegoen halako portzentajerik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hezkuntza eta ekonomia

Astean zehar egondako beste berrikuntza batzuk hezkuntza arlotik ailegatu dira. Hezkuntza Sailak ez

du baztertzen ikasturtea amaitu baino lehen eskola presentzialetara bueltatzeko aukera. Hori bermatzeko, "egoera posibleak" aztertzen ari dira. Diotenez, koronabirusak DBHko eta Batxilergoko ikasketak kolpatu ditu batez ere, horien ostean

Durangaldean 254 baino gehiago dira koronabirusagaitik baieztatutako kasuak

goi-mailako ikasketetarako jauzia datorrelako. Hezkuntza Sailak azaldu du koronabirusaren erruagaitik ikasle bakar batek ere ez duela ikasturtea galduko.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko apirilaren 10a
18. urtea - 802. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

“Euskal presoek oso baimen gutxi dituzte, eta apur horiek ere atzera bota dizkiete”

Azken asteotan euskal presoek senideekin duten komunikazio eza areagotu egin dela salatu du Txaber Arruabarrenak, Sare Herritarraren Durangaldeko koordinatzailea. Herri mugimendua lanean dabil "presoen aferak bere lekua izan dezan"



Txaber Arruabarrena Carlos
Sare Herritarraren Durangaldeko koordinatzailea
Elorrio | 1971

GIZARTEA • IGOR GALARZA

Astelehenean Gorka Fraile durangarrari baldintzapeko askatasuna eman zioten 22 urte espetxean igaro ondoren. Horrek presoen aferaz azaleratu du berriro. ANBOTOK Txaber Arruabarrenagaz berba egin du.

Zein puntutaraino aldatu da presoene egoera?

Zailtasunak areagotu egin dira. Komunikazio presentzialak, bisitak hain zuzen ere, eten egin dira; prentsa eta posta ez dira heltzen espetxe batzuetara, abokatuek telefonoz edo bideokonferentzia bidez egin behar dituzte kontsultak... Lehengo hartu-emanetarako zailtasunei beste batzuk erantsi zaizkie.

Presoen eta euren gertukoaren arteko distantzia handitu egin da?

Aldaketak egon dira presoek senide edo lagunekin dituzten komunikazioetan. Laster hilabete beteko da bisitarik barik, eta imajinatu dezakegu preso eta senideengan

sortu den ezinegona, zuzenean ikusi barik, besarkatzeko aukerarik barik. Kasuistika bi aipatzeagatik, ume txikiak dituzten presoena eta gaixotasunen bat duten preso edo senideena azpimarratuko nituzke. Telefono dei gehiago egiteko aukera eman diete; astean zortzitik hamabira bitartean egiteko aukera dute orain, baina urruntasunak eta dispersioak eragindako inkomunikazioa handiagoa da orain.

Eskubide urraketa horiek zenbateraino hazi dira asteotan?

Euskal presoek kasuan, oso baimen gutxi eman dituzte, eta apur horiek ere atzera bota dituzte. Guraso izan direnen edo senideren bat oso gaixo dutenen kasuetan, adibidez, etxera joateko aukera galarazi diete. Espainiako Gobernuak iragarri zuen hirugarren graduaren dauden presoek etxean beteko zutela falta zaien zigordena, baina oraintsu irten duen Gorka Fraile durangarra baino ez dago egoera horretan.

Zeregin asko duzue orain?

Beste eragile batzuekin, Salhake-tagaz adibidez, sinadura bilketa bat bultzatu dugu oinarritzko eskubideen defentsaren alde doazen neurriak eskatzeko. Horrez gainera, salaketa eta elkartasun ekimen batzuk bultzatu ditugu. Adibidez, martxoaren 27a azken barikua zela kontuan izanda, Etxerategaz batera antolatutako ekimena.

Jendearen aldetik, zelako erantzuna jaso duzue?

Zorionez, eta Durangaldean bereziki, jendeak oso ondo erantzun zuen. Egon dira beste ekimen asko jendeak modu indibidualean zein kolektiboan egin dituenak. Bage-nekien jendeak erantzungo zuela, baina hunkigarria izan da hainbeste pertsonak —ezagun zein ezezagunek— presoek eta euren senideei erakutsitako elkartasuna ikustea.

Zein betebeharrak duzue Saren orain?

Salaketa ekimenak bultzatzen jarraituko dugu. Martitzenean, apirilaren 7an, Osasunaren Nazioarteko eguna zela-eta, larriki gaixo dauden presoek askatasuna eskatu genuen, adibidez. Bizitzaren ari garen egoera berezia amaitzen denerako, presoek aferak bere tokia izan dezan lanean gabilta. Presoak etxerako bidean ipini behar ditugu, gure ustez etxerako bide hori elkarbizitzari eta etorkizun hobe bati egingo diogun ekarpena izango delako.

Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapp-eraz jasotzen?

Batu Anbotoko Whatsapp-era




Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



anboto



Zaldibarko Verter Recycling zabortegearen hondakinak A-8aren ondoan.



Zaldibar Argitu plataformak deitutako manifestazioa, martxoaren 15ean.

Balkoietatik burrundara eginez Alberto eta Joaquin gogoratu dituzte

Astelehenean hile bi bete ziren behargin biak zabortegeko lur-jausian desagertu zirenetik

ZALDIBAR • J.D./J.G.

Konfinamendu egoerak ez du Zaldibarko zabortegean gertatutakoa ahaztarazi. Zaldibar Argitu plataformak deituta, astelehenean burrundara entzun zen Durangaldeko hainbat herritako balkoietan. Egun horretan hile bi bete ziren Zaldibarko Verter Recycling zabortegean lur-jausia gertatu zenetik. Harrezkero, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginek hondakindegian desagertuta jarraitzen dute. Plataformak deitutako ekimenaren bitartez, behargin biak gogoan izan zituzten.

Koronabirusaren krisiaren eraginez funtsezkoak ez diren jarduerak etenda egon arren, zabortegean lanean jarraitzen dute langileen bila. Orain egun batzuk Alberto Sololuzeren autoa aurkitu zuten hondakinen artean.

Auzokideak kexu

Zabortegea dagoen Eitzaga auzoko bizilagunek komunikatua ateratu dute asteon. Lehenengo eta behin, Joaquin eta Albertoren familiarenganako eta lagunenganako

"elkartasuna" erakutsi dute eta bilaketa lanetan "ahalegin eta interes handiagoa" eskatu diote administrazioari.

Kamioiak euren etxeen aurretik "etengabe" pasatzen ari dira. "Tona askoko dozena bat kamioi orduoro pasatzea jasan behar dugu egunehar, egunehar 100 kamioi baino gehiago", kexatu dira. Emari honek aste bi iraungo zuela esan zieten arduradunek, baina dagoe-

Auzokideak: "Tona askoko dozena bat kamioi orduoro pasatzea jasan behar dugu, egunehar 100 kamioi"

neko lau joan dira. Horregaitik, zirkulazioa "lehenbailehen Olarreaga aldera" pasatzeko eskatu dute, "Elena Moreno sailburuordeak orain hilabete Eitzagako auzokideekin egindako bileran berba eman zuen moduan".

Eitzaga auzoko bizilagunei azterketa medikoak egitea da beste eskaera bat. "12 urtean zabortege honen

ondorioak jasan ondoren, uste dugu horixe dela administrazioak kalte-tuekin egin beharko lukeen gutxienekoa. Lehenengo astetik ari gara hori aldarrikatzen, eta erantzunik barik jarraitzen dugu", diote.

Horrez gainera, urari eta lurri buruzko neurketen datu kuantifikagarriak "falta" direla diote. Azkenik, "zalantza handiak" dituzte Eitzaga Etxebarria baserritik 100 metrora eraiki duten hondakinak gordetzeko ziega "behin-behinekoa" ote den. "Ziegaren behin-behinekotasuna idatziz jasotzea eskatzen dugu, eta behin desagertuen bilaketa amaituta, ziega berriro hustu eta beste leku batera eramatea", eskatu dute.

Ikerketa egiten

Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aditu talde bati peritu-txosten bat egiteko agindu dio Verter Recycling zabortegean izandako lur-jausia zerk eragin zuen ikertzeko. Era berean, aditu taldea existitzen den informazio historiko guztia aztertzen ari da.



Tokiko hedabidea Tokiko dendetan

Krisi sasoi honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da informazio zuzena izatea. **ANBOTO**ko webgunean etenbako jarraipena egiten ari gara (anboto.org). Larrialdi egoera honetan paperean ere informazio kontrastatu eta fidagarria argitaratzen jarraituko dugu banaketa puntu hauetan:

ANBOTOren banaketa puntuak:

ABADIÑO / MATIENA

- SOLOKOA (Goretti janari denda) (Zelaieta)
- ARRIAUNDI OKINDEGIA (Muntsaratz)
- GOZOKARS (Muntsaratz)
- PETITE PRENTSA DENDA (Matiena)

ATXONDO

- KIOSKOA

BERRIZ

- ETXEBARRIA ESTANKOA
- EGUN ON OKINDEGIA

DURANGO

- ETXEBARRIA PRENTSA DENDA
- IKERFER PRENTSA DENDA
- OPEN SHOP (Askatasun etorbidean)
- BIZKARRA OKINDEGIA (Alluitz klean)
- KIOSKO PRENTSA DOMINGUEZ (Komentukalea)
- GOZATU OKINDEGIA (Ermodo 11)
- EGUN ON FRUTA DENDA (San Ignazio auzunea 3)

ELORRIO

- ILLARGI PRENTSA DENDA
- ROSARIO CEA FRUTA DENDA
- MATZORRI OKINDEGIA

IURRETA

- URKI PRENTSA DENDA

MALLABIA

- FARMAZIA

MAÑARIA

- BIZKARRA HARATEGIA

OTXANDIO

- KOROSTONDO JANARI DENDA

ZALDIBAR

- IMENDIA

ZORNOTZA

- BILLIKEN LIBURU DENDA
- AYERDI PRENTSA DENDA
- BIZKARRA OKINDEGIA (Gudari klean)
- BIZKARRA OKINDEGIA (Jauregizahar klean)

ANBOTOgaz informazioren bat partekatu gura baduzu:

✉ astekaria@anboto.org ☎ 688 63 50 41

Baliabide digitalik ez duten familiei tresna teknologikoak emango dizkiete, ikasle guztiek eskolekin jarraitu dezaten

Konfinamenduak iraun artean, ikasturteagaz jarraitzea zaila izan dezaketen 25 bat ikasle daude Abadiñon; Elorrion 14 ikasle eta Otxandion 5 antzeman dituzte eskola publikoan

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Gaur lau aste bete dira koronabirusaren eraginez ikastetxeak itxi zituztela Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban lehenago itxi zituzten, eta Nafarroan eta Iparraldean, geroago. Hamabost egunerako hartu zuten neurria. Baina Eusko Jaurlaritzak luzatu egin zuen itxialdia, eta eskolau- me, irakasle eta gurasoek egoera berrira egokitu beharra izan dute. Eskolek tresna digitalak erabiltzen dituzte, ikasleek modu ez-presentzialean ikasten jarraitu dezaten. Hala ere, zenbait familiek gatz dute bide horri hel- tzea, etxean baliabide digitalik ez dutelako. Egoera horri aurre egi- teko neurriak hartzen hasi dira Durangaldeko hainbat herritan.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe bi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentroa daude Aba- diñon, eta ikasturteari jarraitze- ko zailtasunak izan ditzaketen 25 bat ikasle daudela ikusi dute. Elorrion eta Otxandion, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bana dago, eta, hurrenez hurren, hamalau eta bost familia antze- man dituzte egoera horretan. Osasun alarmak iraun bitartean, eskualdeko hiru herriotako uda-

Abadiñon, Elorrion eta Otxandion neurriak hartu dituzte ikasle guztiek internet izan dezaten

lek, ikastetxeekin lankidetzan, neurriak hartu dituzte ikasle guztiek internetera sarbidea izan dezaten. Hezkuntza Sailak bideratuta, ikastetxe bakoitzak ordenagailuak helarazi dizkiete ekipa informatikorik ez duten familiei. Lan hori errazteko, Aba- diñon udaltzaingoaren laguntza izango dute. Otxandion bolun- tarioren laguntzagaz banatu dituzte ordenagailuak.

Internet sarera konektatuta

Ekipa informatikoa izateaz gainera, internet sarera lotze- ko modua ere bermatuko dute Abadiñon eta Elorrion. Hartara, etxean internetik ez duten ikas- leek Izarkom operadore-koope- ratiboaren bitartez konektatuko dira sarera. Mikel Garaizabal Abadiñoko alkateak azaldu due- nez, ikastetxe bakoitza ipiniko da hartu-emanen Izarkom koo-

Elorrion udalak egingo dio aurre Internet sarera konektatzeak eragindako gastuari

peratibagaz, eta azken horrek behar dituzten SIM txartelak emango dizkio ikastetxe bakoit- zari. Hilean 20Gb-ko edukiera dute SIM txartel horiek, eta ba- koitzak 11 euro inguru balio du, gaineratu duenez. "Neurri horre- gaz, herriko ikasle guztiek behar duten ekipa informatikoa eta interneterako sarrera dutela se- gurtatutako da. Eta ikasturtea ga- noraz jarraitu ahal izango dutela konfinamenduan", nabarmendu du Garaizabalek.

Elorrioko Udalak ere bide hori erabiliko du etxean internetik ez duten herriko sei ikasle sarera konektatzeko aukera izan dezaten. Eskolak SIM txartelak eskatuko dizkio Izarkomi, gero ikasleei bana- tzeke, Maria Herrero alkateordeak azaldu duenez. Sarera konekta- tzeak eragindako gastuari udalak egingo dio aurre Elorrion. Eskola- gaz kontaktuan ipintzeko mugi- korra ere emango diete sei familia horiei. Sakeleko horiek "bilketa" bat egingez lortu dituztela azaldu dute.

Boluntarioekin elkarlanean

Otxandioko Udalak eta herriko eskolak boluntarioen laguntzagaz banatuko dituzte ordenagailuak,



Etxean baliabide digitalik ez duten ikasleak zenbat diren jakin, eta neurriak hartzen hasi dira Durangaldeko zenbait udal.



Eskolak tresna digitalak erabiltzen hasi dira, konfinamenduak iraun duen bitartean ikasleek ikasturteagaz jarraitu dezaten.

Eskolan antzemandako beharizanez erantzuteko lan egingo dutela esan du Otxandioko Udalak

konfinamendua dela-eta eskolak jarraitzeko baliabiderik ez duten familien artean. Josu Abaunza zi- negotziak azaldu duenez, ez dute ikusi Internet sarera batzeko zail- tasunak dituzten kasurik. Hala ere, nabarmendu du hartu-eman zuzena dutela ikastetxeko zuzen-

daritzagaz, eta sortutako premiei erantzungo dietela.

Durangon ere neurriak har- tzea aztertzen ari dira, baliabi- de digitalik ez duten ikasleek ikasturteari jarraitzeko aukera izan dezaten. Horrela azaldu dute udal arduradunek.

“Pena handiagaz itzuli naiz; ez da erabakirik gustukoena izan, baina bai zentzuzkoena”

Asier Arroita urte sabatikoa hartu zuen bizikletan bidaiatuz mundua ezagutzeko. Hong Kongetik ekin zion bidaiari, irailaren 7an, baina koronabirusaren krisiak abenturaren ekuatorean harrapatu du. Indiatik heldu berri da eta Ziordian dago orain, borondatezko konfinamendua egiten

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Hong Kongetik (Txina) Ortuellara bizikletan. Asier Arroita horixe zuen erronka, baina ezin izan du bete. Shenzhen, Kanton, Guillin eta Yangshuo inguruak ezagutu zituen Txinan, bidaiari eta bizikletari neurria hartuz, eta, ondoren, Vietnam, Laos eta Kanbodian ibili da, Thailandiara heldu aurretik. Myanmarren hilabete egon eta gero, Indiako ipar-mendebaldetik Bangladeshera sartu zen. Nepalen ere ibili da. Hala ere, koronabirusak bidaia bertan behera uztera behartu du. Domekan heldu zen Euskal Herrirra, Indiatik. Urte askoan ANBOTOn eta Plateruena antzokian lan egin du Arroita eta azken 13 urteetan AEKn lan egin du. Orain, Ziordian dago borondatezko konfinamendua betetzen.

Oraindino egun batzuk falta dituzu etxera heltzeko. Zelan zaude?

Ondo, egoerara ohitzen. Ia 300 lagunek egin genuen bidaia New Delhitik (India) Madrilera, denok batera hegazkinean, eta, badaezpada, borondatezko konfinamendua beteko dut Ziordian, inogaz elkartu baino lehen. Nire moduan bizikletan bidaiatzen ibili diren lagun bigaz elkartu nintzen Indiako Rishikes hirian, Alvaro Teixeira eta Marta Rosettegaz. Indian konfinatuta egon ginen hirurok. Beste hamabost egun egingo ditugu elkarregaz Ziordian.

Erronka bertan behera utzi beharrean izan zara. Penagaz itzuli zara?

Pena handiagaz, bai. Ez da erabakirik gustukoena izan, baina bai zentzuzkoena. Aste gutxi barru India bolborategi handi bat bilakatuko da. Bidaiaren ekuatorean bueltatu behar izan dut. Baina egongo dira aukera gehiago ere. Orain, familia-koak eta lagunak ikusteko gogoia daukat.



Asier Arroita Lafuente
Indian egon da konfinatuta
Ortuella | 1975

@RODOMUNDU

Itxarondakoa baino lehenago irten duzue Indiatik.

Bai. Espainiako enbaxadak New Delhitik charter hegaldia ipini zuela abisatu ziguten, azken momentuan. Aukera bakarra genuen Indiatik irteteko. Kalkutatik eta Bombaytik ere irten dute hegaldiek, baina Espainiako enbaxadak bakarra ipini zuen. Azken eguna New Delhiko Cervantes Institutuan egin genuen. Bertan, eta aireportuan ere, etengabeko segurtasun neurriak hartu behar izan genituen, koronabirusaren eraginez. New Delhiko aireportua oso handia da, eta bospasei langile baino ez zeuden. Dena hutsik zegoen, itxita.

“

“Punjaben ez ninduten gura inon. Jendea urrundu egiten zen, kutsatuko nituen oso beldur ziren”

—

Berdin Madrilgo aireportuan. Madrilen hainbeste polizia eta militar ikusteak asko harritu gintuen. Gasteizera trenean etorri ginen. **Neurriek ezustean hartu zaituzte?** Ez nuen egoera hau inondik inora irudikatzen. Gasteiz huts-hutsik eta jendartean halako tentsioa. Gas-

teizen hiru bider gelditu gintuzten miñoiek. Indian zelanbaiteko la-saitasunez eraman dugu itxialdia, eta hemen beste era bateko egoera sumatu dugu. Jendea haserre, tentsio handiagaz. Nondik gentozen galdetu izan digute, turistak ginen. Azalpenak emanda, ulertu dute.

Zelan hartu zintuen koronabirusaren krisiak Indian?

Ahal izan dudanez neurrian, gertutik jarraitu dut Euskal Herriko egoera (eta mundukoa), baina oso urruneko kontua iruditzen zitzaidan. Indian herri txikietan eta mendialdean ibili gara, eta ez gara egoeraren larritasunaz azkenera arte jabetu. Punjab estatuan izan nuen konfinamendua.

mentuaren berri, Pakistanen sartzera nindoala. Bakarrik nengoen, jendearen mesfidantza sumatzen hasita, eta Rishikeshera bueltatzea erabaki nuen. Itxialdiak bidean harrapatu ninduen. Oso une tentsioak izan nituen poliziagaz, turista izanik ez ninduten pasatzen uzten. Ordu batzuen ondoren, eurentariko batek keinu bat egin zidan eta bideari ekin nion, gauez, argirik barik.

Rishikesen egon zara konfinatuta.

Bai. Nahiko egoera lasaia bizi izan dugu, samurra. Oso ohituta daude turistekin, yoga ikastaroak egitera joaten delako jende asko. Bertokoen moduan, janaria erosteko baimena genuen, 07:00etatik 10:00etara, besterik ez. Kirola egiten, kozinatzen, irakurtzen... eman ditugu egunak. New Delhin desberdina da egoera. Kontrolak daude auzo guztietan, eta konfinamendua erabatekoa da. Polizia eta militarrek daude kalean, eta baimen berezi batez gain, ezin da mugitu. Merkatu eta saltoki nagusiak itxita daude, eta fruta edo bestelakoak lortzea ez da erraza.

Atzeritarrekiko mesfidantza handia sentitu duzula diozu.

Oso egoera desberdinak bizi izan ditut Punjaben eta Rishikesen. Punjaben ez ninduten gura inon, ez hoteletan, ez aterpeetan. Jendea urrundu egiten zen. Kutsatuko nituen oso beldur ziren. India osora zabaldu da jada beldur hori. Ez dute turistarik gura gertu! Oso egoera larria bizi dute. Egunean bizi dira, ez dute aurrezkirik, eta milioika lagunek kalean lo egiten dute. Orain ez dute lanik, janaririk...

Durangaldeko lagunei ezer esatekorik?

Pazientziaz hartzeko. Zaindu daitezela eta hurbilekoak zaindu ditzate. Zaintza erdigunean ipini behar da une latz hauetan, denok onik ateratzeko.

CERAMICAS
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **MIÑAN**
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o **AITAREN ETXEA**
Karmele Jaio (Elkar)

3^o **ITURRIA**
Unai Elorriaga (Susa)

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



Joxe Rojas Granja
Tokikomeko komunikazio
eta IKT zuzendaria
Etxebarri | 1971

“Tokiko informazioaren inguruko egarri hori argi islatzen da webguneetako kontsumoetan”

Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bateragunean dihardu Joxe Rojasek; koronabirusaren krisian tokiko informazioak duen garrantzia nabarmendu du. “Inguru hurbilean zer gertatzen ari den jakitea ezinbestekoa zaigu eguneroko erabakiak hartzeko”, dio Tokikomeko komunikazio zuzendariak Goienak egindako elkarrizketan

HEDABIDEAK • GOIENA

Zein da tokiko euskarazko hedabideen balioa alarma egoera hone-tan?

Nire ustez, egoera tamalgarri honek argi baino argiago utzi du sarritan bigarren mailakotzat jotzen diren toki komunikabideen garrantzia. Honelako egoera batean, hedabide handiek, halaber, egoeraren maila orokor edo globalera jotzen dute: bateko eta besteko gobernuak zer dioen, munduan zelan doazen gauzak... informazio hori behar-beharrezkoa da, noski, baina hau bezalako egoera batean, denok gabiltza urduri eguneroko bizitzari dagozkion erabaki praktikoa hartzeko orduan. Inguru hurbilean zer gertatzen ari den jakitea ezinbestekoa zaigu eguneroko erabakiak hartzeko. Eta hedabide generalistek ez dute modurik errealitatea auzoz auzo kontatzeko. Hori tokikoek baino ezin dute egin.

Informazioaren pluraltasuna bermatzerakoan, zein da tokikoen papera?

Aniztasun horri bi aldetatik begiratu diezaiokegu. Alde batetik, badago komunikabideen ildo editoriala, nolabait esateko, jabea nor den eta noren alde egiten den. Toki komunikabideetan, eta, zorionez, euskarazko medioetan

“

Ez gara jabetzen zer nolako luxua den lobby ekonomiko eta politikoen esferatik kanpoko komunikabideak izatea”

■

oro har, ez dago kontzentrazio hori. Guztiak dira jabe ezberdinenak eta, gainera, gehien-gehienak -guztiak ez esateagatik- gizarte ekimenetik sortuak dira, eta ez enpresa edo ekonomia zein politika talde handien interesak babesteko. Alde horretatik, uste

dut ez garela jabetzen zer nolako luxua den gaur egun lobby ekonomiko eta politikoen esferatik kanpoko komunikabideak izatea. Pribilegiatuak gara horregatik. Bestetik, tokikoen kasuan, aniztasuna informazio iturrietan ere badugu. Albisteak gertatzen diren lekuan bertan gaude, iturrietatik oso gertu. Tokikoetan ematen den informazioa ez da medio handietan ematen dena bezain ‘prozesatua’. Koloragarri eta kontserbagarri gabea da. Audientziak aldatu egin dira krisia hasi zenetik? Jendeak inoiz baino beharrezkoago du ondo informatuta egotea? Are gehiago fake news-ak eguneroko bihurtu diren honetan?

Tokiko informazioa funtsezkoa da gure bizitzan. Eta ezohiko egoera horretan oso garrantzitsua da, bai, informazio zehatz eta puntuala izatea, zurrumurruak eta albisteak ondo bereiztea... horretan guztian, komunikabideek, tokikoek eta beste

guztiek, oso paper garrantzitsua dute egunotan. Denok ikas dezagun interneteko sare sozialak ez direla informazio iturri fidagarriak. Baina tira, bigarren horrekin ez daukat esperantza handirik...

“

Webguneetako trafikoa hazkunde handiagoa da gaixotasuna azkarren zabaldutako eremuetan”

■

Tokiko informazioaren inguruko egarri hori argi islatzen da, adibidez, TOKIKOMeko webguneetako kontsumoari erreparatzen badiogu. Martxoaren 3tik 23ra, webguneek 1.504.200 bisita izan zituzten guztira, aurreko 20 egunetan baino %34 gehiago. Batez beste, webgune

bakoitzaren bisitak %38 hazi dira aurreko 20 egunekin alderatuta. Baina trafikoa hazkunde askoz ere handiagoa izan da gaixotasuna azkarren zabaldutako eremuetan. Arabako Aleak, adibidez, ohiko trafikoa hirukoiztu du ia. Bizkaian, berriz, Hego Uribeko Geuria ere hortxe-hortxe ibili da, %142ko hazkundearekin. Arriskua gertuen ikusten dutenek toki komunikabideetara jo dute informazio bila. Tokikomeko hedabideek koronabirusari buruzko datu estatistikoak lantzeko egin dugun ahalegina nabarmenduko nuke.

ANBOToren kasuan ere, lan handia egiten ari zarete bai webgunean eta baita paperean ere. Martxo osoko datuak otsailekoekin konparatuta, bisitak %28 hazi dira, eta ikusitako orrialdeak %30 pasatxo, igoera handi batekin martxoaren 14tik 22ra bitartean. Bisita gehien martxoaren 19an izan dira, 7.550, aurreko hilabeteko (3880) datua ia-ia bikoiztuta.



LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:

655 712 433 eta **662 586 190**

10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:

685 709 347

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:

94 466 94 30 eta **688 679 414**

ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:

608 321 901 eta **685 713 187**

BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako telefono zenbakia: **685 752 311**

PSIKOLOGIA-LAGUNTZA telefonoz (10:00 - 12:00 / 17:00 - 19:00)

636 189 449 (nerabeak, helduak eta adinekoak)

645 732 388 (bikotekideak)

617 319 714 (haurrak eta adinekoak)

DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:

638 102 424

durangoauzolana@gmail.com

ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonak Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

ASTELEHENETIK - BARIKURA

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

16:00 - 20:00: **617 144 737** / **618 683 087**

ZAPATU-DOMEKETAN

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

MAÑARIA

Beharizana dutenentzako telefono zenbakiak:

94 681 89 98 / **654 653 176**

OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia beharizana dutenentzat zein boluntario izan gura dutenentzat: **648 023 531**

ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:

660 341 642

ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:

Boluntario izateko: voluntariadobizkaia@cuzroja.es edo

Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:

elkartasuna.zornotza@gmail.com

641 873 166

“Forma musikal estandarrak erabili ditut, sofistikazio gehiegitan sartu barik; hitza azpimarratzeko, zelanbait”

Ander Erzilla musikari durangarraren proiektua da Ekuru, bere gertuko hainbat kideren laguntzagaz ondutako proiektua



Iñaki Jaio, Irati Bilbao, Mikel Nuñez, Ander Erzilla eta Ander Garcia Ekuruko taldekideak.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ekuru taldeak jazz kutsuko doinuez jantzi ditu hainbat poema eta testu. Diskoak zazpi kantu ditu eta horietariko bost Luis Anselmi poeta bilbotarraren lanak abiapuntutzat hartuta konposatu dituzte. Beste kantuetako baten letrak Andoni Mujikarenak dira. 'Itsasoa laino dago' abesti herrikoiairen moldaketa da beste konposizioetariko bat. Sarean dago entzungai. Ander Erzilla da proiektuaren sortzailea.

Hiztegian 'ekuru' bilatuta, adiera hauek agertzen dira: geldi, patxadatsu, lasai. Lasaitasun musikal bat helaraztea da Ekururen asmoa?

Luis Anselmiren poemetatik hartutako berba da. Polita delakoan nago. Anselmik dezentetan erabiltzen du ekuru berba, baina askotariko adierak eta interpretazioak izan ditzake. Izan ere, lasaitasunari, pazientziari, gelditasunari lotzen zaion berba da, baina zelanbait, erne egoteko jarrera bat ere iradokitzen du. Bada euskal esaera zahar bat ere: *hago zorigaitzari ekuru eta onari aiduru*. Taldeak izena behar zuen, eta azkenean, hara, Ekuru. **Esan liteke zure proiektu propioa dela Ekuru. Bide berriak zabaltzeko gosea sentitu duzu?**

Kanta hauetariko batzuk aspaldi konposatutakoak dira. Beste ba-

tzuk, oster, berriak dira. Material dezente nuen, eta proiektu bat sortzera animatu nintzen guztiari forma eman ahal izateko. Horretarako, baina, kide gehiago behar nituen. Hasteko, ahots bat. Nik saxofoia joz parte hartzen dut, atzealdean ahots batzuk sartuta, baina taldekideak behar nituen. Gertukoengana jo dut proiektua sortzeko, eta Irati Bilbaogaz, Mikel Nuñezegaz, Ander Garciagaz eta Iñaki Jaio gaz osatu dut taldea. Hasieran Bilboko lagun batek, Txubiok, jotzen zuen kontrabaxua, baina Ander Garcia barakaldarrak ordezkatu du. Berak parte hartu du grabazioan.

Mikel Nuñez eta Iñaki Jaio, zure moduan, Bartolome Ertzilla musika eskolako irakasleak dira. Proiektua osatzeko haiengana jotzean, presio gehiago eragin dizu horrek?

Ez. Lasaitasun eta elkarlan gehiago ekarri duela esango nuke. Enpatia sumatzen da taldekideen artean, musikaz gainera, oso harreman ona dugulako. Taldeko hiru lagun musika eskolako irakasleak gara. Iñaki eta biok aspaldidanik gara irakasle. Mikel aurtan hasi da. Irati oraintxe ari da Donostiako Musiken kantu jazz ikasketak amaitzen. Anderrek Madrileko hainbat taldegaz lan egiten du musikari lez.

Zein ezaugarriak deskribatu daitezke Ekururen lehenengo disko hau?

Abestiak dira. Eta abesti horiek zelan jantzita dauden? Niretzat ezinbesteko garrantzia du kantua barneko testuak edo poemak ondo helarazteak, ondo ulertarazteak. Musikak hitzari lagundu behar dio; ez alderantziz. Testu bakoitzak bade bere nolabaiteko erritmoa, eta horri erreparatzen diozu berbak musikara eramaterakoan. Testuen aukeraketa musikalki diotenaren arabera dago eginda. Horretarako, forma musikal estandarrak erabili ditut, sofistikazio gehiegitan sartu barik; hitza azpimarratzeko, zelanbait. Bestalde, nire lanetan ohikoa den moduan, inprobisaziozko tartek ere badaude. Inprobisazio

“Saltsanen diru-laguntza izan dugu. Zientzia fikzioa dirudi, gutxik eskaintzen baitute laguntza”

ANDER ERZILLA

horiek ez dira beharbada diskoan hainbeste ageri, dena neurtuago dagoelako, baina zuzenekoan zabaldu egiten da hori. Kontuan hartu behar da egun bitan grabatu dugula diskoa. Guztiok aldi berean joz grabatu ditugu kantuak. Hiru saio izan dira. Saiorik onenak hartu ditugu eta ez da ediziorako tarte handirik egon.

Kontzerturik egingo duzue?

Aurkezpenean joan zen barikuan egin gura genuen, baina dena bertan behera gelditu da. Diskoa sarean dago entzungai. Ahal dugunean egingo dugu aurkezpenean. Bestalde, lagunei ere esango nieke KDari balioa emateko. Edizio txukuna da eta bertan daude letrak. Gainera, Saltsan catering etxearen diru-laguntza izan dugu. Gaur egun zientzia fikzioa dirudi, gutxik eskaintzen baitute laguntza, baina oso esker oneko gaude. Gainerakoan, zuzenean ere aurkeztu gura dugu lana, musikari batek gehien gura duena zuzenean jotzea da eta.

iragarki
laburrak
.eus

Botikak		
BARIKUA, 10 · 09:00-09:00	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17 - DURANGO	09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana, 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA	EGUAZTENA, 15 09:00-09:00
09:00-22:00	DOMEKA, 12 · 09:00-09:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 8 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA	SAGASTIZABAL , Askatasun etorbidea 19 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana, 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SAGASTIZABAL , Askatasun etorbidea 19 - DURANGO	09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana, 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA
09:00-13:30	ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	MUGICA ANDRA Maria 9 - DURANGO	EGUENA, 16 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA	09:00-22:00
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berriotxo 6 - ELORRIO	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5- ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Erreka 6 - ELORRIO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00	
09:00-14:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	

Zorion Agurrak



Zorionak eta eskerrik asko, aita. Apirilaren 5ean zure urteguna distantzian ospatu arren, egun berezia izan zen etxekoentzat. Laster, laster, edozein egunetan, kriston festa egingo dugu, besarkada eta guzti. Segidu horrela, txapeldun.



Zorionak, **Intza!** Ziur aurtengo urteguna berezia izango dela, benetan berezia! Mosu eta besarkada handi bat zure famili-xian partez.



Zorionak, **Irati!** Momentuz ezin ospatu lagunekin, baina hartu besarkada handi bat familia osoaren partetik eta mosu erraldoia lagunaren partetik.

Tortillachallenge



Martiñe Usaberen tortillak irabazi du #tortillachallenge lehiaketa. Zorionak, Martiñe!

Gora beherak



Zertan ari da Marilyn Monroe igogailu batean?

Martxoaren 20tik aurrera **'Gorabeherak'** websaila **'Ttap'** aldizkari berrituan ikusgai!

ttap

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan. Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

**DESKARGATU**
Play Store-n

**DESKARGATU**
APP Store-n



Instalatu orain!

Ideiak astindu eskuak arindu

KORTXOZKO GILTZATAKOAK

MATERIALA:

- Kortxoak
- Kako borobilduak
- Giltzak biltzeko eraztunak
- Errotulagailu ezabaezinak
- Tipp-ex likidoa
- Kola
- Guraizeak

AUKERAN:

- Artilea
- Feltroa



Behi edo elefante zangoa



1. Hartu xanpain botilako kortxoa eta margotu zuriz, tippexarekin. Mota honetako kortxoek metalezko txapel bat izaten dute gehienetan. Nahi izanez gero, kendu.

2. Errotulagailu beltzez, behi larruaren orbanak margotu.



4. Elefante zangoa behiarenaren antzean egingo dugu.

3. Kakoa jarri. Eskuz erraz jartzen dira, baina badaezpada laguntza eskatu helduei.

Giltzatakook nonahi saltzen dituzte, baina guk ere egin ditzakegu eskuz, eta polit askoak, gainera. Giltzatakookaren apaingarria fabrikatzeko, kortxoa beharko dugu, eta erabiliak ere balioko liguke

Munstro begibakarrak



5. Kortxoak garbiak baldin badira edo ezer inprimaturik ez badute, ez daukazu lehenik kortxoa zuritzen aritu beharrik. Dena den, zuriaren gainean biziago gelditzen dira koloreak.

6. Aurpegiak margotu eta gero, kakoak ipini eta osagarriak itsatsi. Esate baterako, feltrozko mihia.

7. Kalparrak jarri nahi izanez gero, artilea beharko duzu, eta ahal dela, lodi samarra. Zati batzuk ebaki eta kortxoaren gainaldean itsatsi. Lehortutakoan, txirikordak egin. Tenteegi gelditzen badira, kolore bereko artilez inguratu burua.



ARRAIN GOZOAGORIK!



OSAGAIK:

hostorea,
esne-dultzea,
txokolatezko krema (nocilla edo
tankerakoa),
banana handi bat,
limoia.

DENBORA: guztira 25 minutu
(prestatzeko 10 eta labean 15).



1. Laberako azpil egokian hostorea zabaldu. Arrain forman moztu, baina ez bota soberakinik. **2.** Esne-dultzea zabaldu, edo nahiago baduzu, txokolatezko krema (nocilla edo antzekoa). Ez eman gehiegi, eta ertzak ere libre utzi (zentimetro inguru). **3.** Banana bat xerratu eta esne-dultzearen edo txokolate kremaren gainean jarri, isatsetik hasi eta bururantz, arrainen ezkatak imitatuz. Buruan ez jarri. **4.** Isatsari eta buruari hostorezko tapakiak egin. Arrainaren ertzak biribildu esne-dultzeak ihes egin ez dezan, edo tapakiak jarri hor ere. Azkenik, txokolatezko begi bat egin eta hostore zintatxo batez inguratu.



“Umoreari eutsi beharra dago; egunero irteten dut balkoira txalotzera”

100 urteaz, konfinamenduari baikortasunez aurre egiten dio eta bere ingurukoak ere alai mantentzen ahalegintzen da

ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO

Mendea beteta osasuntsu dago, ez du inoren laguntzarik behar jator-
duak prestatzeko, eta bere ohiko
pasealdiak, kalean barik, balkoian
egiten ditu, hara eta hona. Eguraldi
txarrari aurpegi ona ipintzen ahale-
gintzen da Jesus Aguirre, eta umo-
reari eutsi beharra dagoela dio. De-
nen mesederako lanean dabilzan
mediku, erizain eta bestelakoak ere
gogoan ditu eta egunero irteten du
balkoira txalo egitera.

Zelan daramazu isolamendua?

Ondo daramat, entretenituta
nabil. Bakarrik bizi naiz eta neu-
re janaria neuk prestatzen dut.
Kalera ezin denez irten, balkoian
paseatu eta alboan bizi den Ro-
sigaz berba egiten dut. Rosi nire
etxera etortzen da etxeko lanak
egiten laguntzera. Gainera, sei
seme-alaba ditut eta sarritan
etortzen dira ni bisitatzen. Arra-
tsaldero osasun arloko langileei
euren lana txalotzeko deituta
dagoen ekitaldian ere parte har-
tzen dut. Egunero irteten dut txal-
lotzera, umoreari eutsi beharra
dago! Lan handia egiten ari dira
eta eskertzekoa da.

Ez duzu aspertzeko astirik!

Ez, ba! Ondo nago. Telebista fut-
bola eta esku pilota ikustea gus-
tutzen zait gehien. Egunkaria ere
irakurtzen dut eta ez dut betau-
rrekorik behar letrarik txikiena
irakurtzeko ere.

Egunkarietan irakurtzen duzunak kezkatzen zaitu?

Koronabirusa arriskutsua da, adi-

nekoontzat zein beste askoren-
tzat. Denok zaindu behar dugu
ahalik eta gehien. Anbulatortik
sarritan etortzen zaizkit zelan
nagoen ikustera, eta ondo nago-
la esaten diet.

Zein da hain osasuntsu mantentze- ko sekretua?

Sano elikatzea, horixe azpima-
rratuko nuke. Janari frijituagaz
gehiegikeriarik ez egitea eta fru-
ta eta barazki asko jatea. Horrela
elikatzen ahalegintzen naiz.
Ehun urte ditut eta ez dut pastilla

“**Anbulatortik sarritan
etortzen zaizkit zelan
nagoen ikustera; ondo
nagoela esaten diet**”

bakar bat ere hartzen, zorionez.
Etxera analisiak egitera etortzen
zaizkidanean, emaitzak onak
izaten dira. Zer gehiago eskatuko
dugu, bada?

Momentu latz asko igarotakoa zara; gerrak, esaterako.

Gerra zibila, bigarren mundu
gerra... Gerretan ez da oroitzar-
pen onik geratzen. Soldaduska
egiten hasi nintzenean hasi ziren
gerrak. Batez ere, bideak egiten
eta antzerako lanetan ibili behar
izan nuen zazpi bat urtean, Te-
ruelen, Zaragozan, Irunen eta
beste hainbat tokitan. Urte gogo-
rrak izan ziren eta gogoratzen di-

tudanean triste ipintzen naiz. Se-
me-alabei gauza bera esaten diet
beti: "Ez dezazuela sekula pasatu
nik pasatu behar izan nuen".
**Konfinamendua ezohiko egoera da.
Gaur bizi dugun antzerako egoera-
rik bizi izan duzu?**

Arabako Baranbion jaio nintzen,

“**Gogoan dut umea
nintzela hainbat
pertsona hil zela
nire auzoan,
tuberkulosiak jota**”

eta gogoan dut umea nintzela
hainbat pertsona hil zela nire
auzoan, tuberkulosiak jota. Aspal-
diko kontua da, baina gogoratzen
dut. Beste sasoi batzuetan ere
gertatu dira gaixotasunak, zori-
txarrez. Bizitza honetan denerik
pasatzea egokitu zaigu!



**Jesus Aguirre
San Julian**

Abadiño | 1919



**Egiguzu nahi duzun eskaera telefonoz eta zu zatozenerako prest izango dugu,
Durangon zein Zornotzan. Ez duzu ilaran itxaron beharko.**

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722